


A close-up portrait of a middle-aged man with dark hair, smiling slightly. He is wearing a red and black plaid shirt. The background is dark and textured.

Mikel Garmendia

Pako Aristi

Mikel Garmendia

Pako Aristi

Egilea: Pako Aristi

Koordinaketa: Azpeitiko Udala / Antzerki Topaketak

Azala: Txakel (Azpiazu y Urarte), S.L.

Maketazioa eta inprimaketa: FK

L.G.: SS-1109/01

I.S.B.N.: 84-921844-8-5

Azpeitian, 2001ko Urria

AURKIBIDEA

UMEAREN BEGIRADA	5
GALDU EZINEKO AUKERA	7
IRTENBIDEA ZEUKAN MUNDILLOA	9
ARETOAK BETE EZINDA	12
APAIZ PANTAILA HANDIAN	14
NIREAK EGIN DU	16
TALENTUAREN BERPIZKUNDEA	18
BALANTXAS MOZKORRAREN MITOA	20
EUSKAL ZINEAREN ILUSIO FALTSUA	23
BONBA BAT ESKUARTEAN	25
ANTZERKIAREN ORDUA HERRI TXIKIETAN	27
ETA GIZONA UME BIHURTU ZEN	28
ANTZERKIA, PLAZERRA ALA GURUZBIDEA?	30
MIKEL, BALANTXAS, POLONIO, JOXE MARI	33
LAPIKO ZIKINTZEN MAISU	35
BELAUNALDI BERRIEN AURREAN	38
HAINBESTE MAITE DUGU MIKEL!	41
GOAZAK ELKARREKIN - ANJEL LERTXUNDI	44
BEREZKO AKTOREA - KONTXU ODRIOSOLA	46
GARMENDIA ZARRA - ENEKO OLASAGASTI	48
EL METODO UNICO - FELIX LINARES	51
KURRIKULUM BATERAKO DATUAK	53

AURKEZPENA

Azpeitiko Antzerki Topaketak dagoeneko hemen ditugu eta XIX. edizio honetan hainbat aldaketa izango ditugu.

Ohitura denez, urtez-urte antzerkigintzarekin zerikusia izan duen pertsonaiaren bat omendu dugu baina aurten alor honetan aldaketa bat izango digu, nahiz eta honek ez esan betiko autore horiek ahaztuko ditugunik datozen edizioetan.

Antzerki munduarekin zerikusia izan duten eta hainbat lan egin duten autoreek merezimendu osoa dute baina aldi berean gaur-egun mundu honetan diharduten hainbat pertsonaia ospetsu ditugu eta aurtengoan hauetariko bati omenaldi txiki bat egitea otu zaigu, Mikel Garmendiari hain zuzen ere.

Nork ez du ezaguten Mikel Garmendia? Beno agian "Goenkaleko Joxe Mari" esanez gero aski ezagunagoa egingen zaigu zeren esan genezake nahiz eta aktore edo antzezle honek hainbat lan ezberdin egin, ezagunena telebistan izan duen eta gaur egun duen paper honengatik izan dela.

Zalantzarik ez dugu egiten Euskal Herriko txoko guztietan dugula bere presentzia edo ezagupena baina berari buruzko hainbat datu eskeintzera gatoz gu eta horren islada eskeintzen digute aurkezpen honen ondoren Pako Aristik idatzi dizkigun orrialdeek.

Laburpen txiki, bat eginez esan genezake Mikel Ordizian jaio zela 1945ean eta gaur egun Donostian bizi dela. Zaletasuna ume-umetatik izan duela adierazten du berak baina 1982an bilakatu zitzigun profesional eta hemendik aurera guk ezagutu dugun hainbat paper ezberdinetako pertsonai aski ezaguna bilaktu da.

Esan beharra dago Mikelek antzerki alorrean hainbat une gozo eskeini dizkigula bestela begiratu besterik ez dago hain arrakastatsuak izan diren "Ama begira zazu" edo "El florido pensil" antzezlanai. Baina pixkat haratago joan da garbi ikus dezakegu autore honek beste hainbat alor jorratu dituela, hala nola, telebista eta zinema mundua.

Telebistan ia egunero izan dugu gure etxeetan hain ezaguna eta arrakastatsua den "Goenkale" telesailean baina beste hainbatetan ere bere partehartzea nabarmendu dezakegu "Jaun eta Jabe", "Maite", "Bi eta bat"...

Zinema munduan ere 22 paper ezberdin izan ditu, batzuk aipatzekotan. "Maite", "Hamaseigarrenean aidanez" eta Manuel Gutierrez Aragonek zuzenduriko eta estrenatzeaz dagoen "Visionarios"...

Hauxe da, asko laburtuz, Mikel Garmendiaren biografia oparoa eta gizon handi honi buruz zerbait gehiago jakin nahi duenak bere ahotik ateratako hotsak Pako Aristiren idatzi bilakatu diren hurrengo orrialdeak irakurtzea besterik ez du.

AITOR GORROTXATEGI LARRAÑAGA
KULTURA ZINEGOTZIA
AZPEITIKO UDALA

1 - UMEAREN BEGIRADA



Ume batek, bere ingurura begiratu eta zer ikusten duen, eta ikusitakoaz zer pentsatzen duen, bizitzaren misteriorik handienetakoa izango da beti. Batez ere ume horren barne-irrika horietara iritsi ezin diren helduentzat.

Ume baten aurrean, izan ere, bide asko agertzen dira, bide asko gurutzatzen dira. Horietako bat sendiarteko tradizioa izaten da, etxean duten bizitzeko era, joera, eta etxean estimatzen dituzten gauzak estimatzen ditu lehenik umeak ere. Gero beste gauza batzuek ikusten ditu umeak bere begien aurrean, eta aurreraxeago arte ezin da jakin ume horrek egingo duen aukeraketaren berri.

Mikel Garmendia Ordizian jaio zen, 1945eko urtarrilaren 22an. Beraz, 56 urte dauzka gaur egun. Etxean arrandegia zeukaten, oraindik ere, 60 urte ondoren, bere arrebak jarraitzen duena. Han sobratzen ziren legatz-kokota guztiak, garai hartan hainbeste apreziatzen ez zirenak, etxean jaten zituzten. Gaur egun ere, erdiko trontzoa baino gusturago jaten du kokota Mikelek. Umetako ohitura onak ez dira baztertu behar.

Ordea, beste leku batek erakartzen zuen Mikel umearen begirada: etxe azpiko lokal batean antzerki talde batek entsaiatzen zuen. Bere hitzetan esanda, 'ni txikia nintzela han egoten nintzen sudurra non sartuko, hura ikusi nahian, liluratuta egoten nintzen entsaioetan, beste ume batzuekin batera'.

'Laguntasuna' taldea zen hura, Ordizia eta inguruko jendeak osatua, eta afizionatu mailan egiten zuten antzerkia, Toribio Alzagaren obrak eta beste.

Haur kuxkuxeroa izan arren, garai hartan Mikel ez zen ezer antez-tera iritsi; ez zen taldekoei ezer esatera ausartu. FPko ikasketak egin zituen La Salleko fraileetan, eta gero CAPEko eskolan industri mailako ofiziala.

18 urterekin izan zuen hurrengo harremana antzerkiarekin. Taldetxo bat osatu zuten, eta Alejandro Casonaren obra bat prestatu, euskaratua zegoena: 'La barca sin pescador', euskaraz 'Txalupan jaberik ez'. Halere ez zuen jendearengan gogo handirik ikusi, beti jendearen atzetik ibili behar zuen, ez zeukaten nonbait Mikelen grinarik antzerkiko, eta, nazkatuta, utzi egin zuen.

Hurrengo 18 urtetan Mikelek ez zuen beste harremanik izango antzerkiarekin, ikusle moduan izan ezean. 36 urte arte ez zuen antzerkirik serio egin. Mikel beranduko aktorea dela esan daiteke. Oso berandu hasitakoa, baina urteei probetxua inork ez bezala ateratzen jakin duena.

Baina zer gertatu zitzaion 36 urterekin? Egun hartan autoa aparkatu nahian zebilen Donostiako kaleetan.



Maité filmean, angula haundi samarrarekin.

2 - GALDU EZINEKO AUKERA

Ordurako Donostian bizi zen Mikel. Emaztea erizaina zen Erresidentzian, eta bi ume zeuzkaten. Mikelek 'biajante' lana egiten zuen, gaur egun saltzaile, nahi baduzue.

Autoa aparkatu ezinik zebilela, irratian entzun zuen Eusko Jaurlaritzak antzerki eskola bat sortzeko asmoa zeukala, eta dei bat egiten zutela, horretan hasi nahi zuten guztientzat, halako lekutan, halako egunetan eta ordutan agertzeko.

'Esan nion neure buruari, hi beti horren zain egon haiz, orain duk ba aukera. Banoa presentatzera, esan nuen, eta horrela, 36 urterekin, 116 kilorekin, presentatu nintzen, eta orain arte. Ez naiz sekulan damutu'.

Dena ez zen erraza izan. Bere adineko gizon bakarra zen, emakumeak, Kontxu Odriozola tartean zelarik, gehiago baziren ere. Gainontzekoak 20 urte inguruko gazteak denak. *'Han neure burua ikusi nuenean pentsatu nuen, nik zer arraio pintatzen dut hemen? 16 urte kentzen nizkien, baina esan nuen, behin joanez gero, proba egin beharko diagu ba'.*

Ez zitzaion etxeko laguntzarik falta izan. Emaztearekin hitz egin ondoren, hala esan zion honek samurtasunez: 'Zu beti horren zain egon zara, orain aurrera egin behar duzu'.

Antzerki eskola hura 'Antzerti' deitzen zen, eta Donostiako Andia kalean zeukan egoitza. Lehen deialdi hartan 95 lagun aurkeztu ziren. 30 leku zeuden. Han agertu zen Mikel bere 116 kilorekin, *'itxura berezi samarra emango nian'*, eta hartu egin zuten. Promozio hartako aktore asko dira ezagunak gaur egun: Elena Irureta, Isidoro Fernandez, Karlos Zabala, Eneko Olasagasti, Arantxa Gurmendi, Kontxu Odriozola eta beste asko.

Epaileak Xabier Elorriaga aktorea, Ramon Labaien Kultura Kontseilaria, Juan San Martin idazlea eta beste batzuek izan ziren, espektakuloko eta euskal kulturako jendea dena.


Egin zizkieten probak: lehenengo irakurketa bat; gero pertsonaia bat eman eta hura landu, hurrena inprobisaketa bat, eta gero antagoinista batekin eszena.

Hartu zuten Mikel, eta lehenengo urtean lanean jarraitu zuen. Bigarren urtean dedikazio osoa eskatu zieten 15 laguni, eta horretan laguntzeko bekak antolatu. Une hartan, 37 urterekin, lana uzteko garaia iritsia zela sentitu zuen Mikelek. Etxean hitz egin ondoren, emaztearen eta seme-alaben laguntza jaso zuen, beti bezala: 'Aurrera, egin zeure gustua'. Eskolan gustura zebilen, etorkizun polita ikusten zuen, ikaskideek ere animatu egin zuten, eta azkenik erabakia hartu zuen: 37 urterekin lana utzi eta antzerkira dedikatzea. *'Gainera, bigarren urterako montaje bat prestatu genuen, bi pelikula etorri zitzaizkidan, ikusten nuen bidea bazegoela, eta zure ogibidea lortzen baduzu zure hobbyarekin, bedeinkazio handiagorik ez dago, eta hala gertatu zitzaidan niri. Ez nintzen gehiago biajante lanera itzuli'.*



Albaniaren konkista filmean, besoak zabalik errezoan.

3 - IRTENBIDEA ZEUKAN MUNDILLOA



Hona 36 urteko gizon heldua bat-batean ikasle bihurtua. Eta ez hori bakarrik; klasetik kanpo ere, gaztetxo haiekin ibiltzen zen Mikel. Giro ona zegoen taldean. *'Niri entsaioak motzak egiten zitzaizkidan'*. Eta Mikelek ikusi zuen *'mundillo'* hark irtenbidea edukiko zuela. Telebista sortu berria edo sortzen ari zen 1981 inguru hartan, euskal zinea ere orduantxe hasi zen, bikoizketa lanak ere egiten zituzten aktoreek. Handik eta hemendik, bizitzari aurre egiteko moduan izango zen Mikel.

Hori bai, goizean 8/30etarako eskolara joan behar. Lehen urtean egun erdia egiten zuten, baina bigarrenetik aurrera 8 ordu egunero. 8 ordu gorputz espresioa lantzen, musika, inprobisaketak, antzerkiaren historia...

Lehenengo obra prestatzen hasi ziren: *'Antigona'*. Egilea: Jean Anouil. Zuzendaria Esteve Polls izan zuten, eta honek berehala asmatu zuen Mikelen etorkizuna. *'Esteve Pollsek esan zidan ni generiko on bat izango nintzela, sekundario bat, tipoa beti emango nuela eta ez ziztaidala lanik faltako'*.

Aktore lana, izan ere, oso berezia da, jubilazioa, zahartzea ezagutzen ez duen lana, adin guztietako pertsonaiak behar baitira bizitza isladatuko baldin bada. *'Badakizu honetan inoiz ez zarela zahartuko, ez daukazu pentsatzen ihardun beharrik urteak aurrera doazela eta iada ez dagoela ezer zuretzat, hau ez da kirola bezala, adin batekin bukatu egiten dena. Aktore askok 70 urtetik aurrera egin dituzte euren lanik onenak eta garrantzitsuenak'*.

Hasierako urte haiek euskal antzerki modernoaren haurtzaroa direla esan daiteke. Orduan ezarri ziren antzerki profesionalaren zutabeak, jendearen heziketa egoki baten bidez. Gaur egun gure memorian daudden hainbat pertsonaia urte haietan egindako lanaren ondorioz iritsi dira gure kultura aberastera.

‘Giro berria zen denontzat. Antzertin hasi ginenok, asko, ni bezalaxe, antzerki handirik ikusi gabeak ginen, tarteka Madrilgo talderen bat ez bazen, baina kuriositate handia geneukan, espektatiba batzuek geneuzkan. Izugarriko afizioarekin sartu ginen, beste gauza guztien gainetik antzerkia maite genuelako’. Izan ere, lehen promozio hartan bazen kazetaritza egindako jendea, edo beste karrera batzuek, eta euren zereginak utzita joan ziren antzerkia ikastera, grina hutsaren mende.


Hiru urte egin zituzten Antzertin, eta handik aurrera haien bizitza eszenategietan gauzatu da, pantailetan, platoetan. Antzerti desagertu egin zen urte batzuen ondoren, baina orain behintzat, antzerkia maite duenak badauka zer ikusi, badauzka aktoreak bide bat erakutsiko diotenak. Ia ezer ez edukitzetik ispilu handi eta eder bat edukitzera pasa da euskal antzerkigintza.

Esana dugu: urte haietan dena zen berria, antzerkia, klaseak, euskal telebista bera. Bi mundu horiek lotuko zituen gauza klabe bat sortu zen orduan: *‘Bai horixe!’* saioa. Adina daukanak gogoratuko du. Alabaina, zer zen *‘Bai horixe?’* Bada, euskara ikasteko HABEk sortu zuen dramatiko tankerako bat, hau da, aktoreekin egindako grabazioak. Klasean ematen zituzten, telebistak ere eman zituen, eta gero bideoan ere saldu izan dira.

Loturarik gabeko esketxez osatua zegoen atal bakoitza. Hor egin zuten lan Mikelekin batera Antzertin zebiltzan aktore gehienek. Klasean ikasten zutena nolabait praktikan jartzeko bide bat izan zen *‘Bai horixe!’*, eta gainera kobratuta. Oso garrantzitsua izan zen denontzat. Mikelek ere hala dio: *‘Bai horixe gauza klabea izan zen, hori izan*

zen gure mantenua eta gure forja. Asko ikasi genuen hori egiten, kama-ra aurrean egoten, pertsonaje ezberdinak jorratzen, eta diru aldetik ondo ordaintzen zuten, horri esker agoantatu genuen askok. Ia egunero egiten genuen lana, goizetan, eta gure ikasketak praktikan jartzeko bide bat izan zen. Oso giro majoa zegoen gure artean. Zuzendariak, Juan Migel Gutierrezek, asko zekien, eta guregandik gauzarik onenak atera zituen, nik beti esker handia izan dut berarentzat eta *HABE* erakundearentzat. Bai Horixeri esker gaude gaur hemen gutako asko, horregatik izan ez balitz jende asko gaur egun beste gauza batzuek egiten egongo zen, baina ez antzerkia'.

Ondo dago esker onekoa izatea, denbora pasa ondoren hasieran ezinbestekoak izan ziren lanak gogoratzea.



Hamaseigarrenean, aidanez filmean, apustua prestatzen.

4 - ARETOAK BETE EZINDA

Lehenengo antzerki muntaiak iritsi ziren: 'Antigona', 'Troiarrak', 'Arlequino', denak eskolaren baitan prestatuak. Haiek komertzialki ez zegoen egiterik, jende asko behar zutelako, aurrekontu handia. *'Nik uste bai guretzat bai jendearentzat gauza berria izan zela. Jendea ohituta zegoen Arturo Fernandez, Concha Velasco eta horrelako jendea ikusten, eta orduan, hasieran jendea gurekin nahiko deskonfiatuta zegoen. Gainera euskaraz ziren emanaldiak hasieran, nahiz eta gero erderaz ere egiten hasi, zeren jendea hasieran ez zen etortzen zen, eta guk jendea ekarrarazi nahi genuen antzerkira. Piskanaka jendeak ikusi zuen hemen ere gauza tajuzkoak egiten zirela. Kosta egin da, baina nik uste gaur egun nahiko maila altua duela hemengo antzerkigintzak, eta jendea guregana beste edozein ikustera joaten den bezala datorrela, gustora'.*

Laster eman zuten beste pauso bat: euren kasa antzerki obrak prestatzea, jende gutxiagorekin, horrela bizitzeko diru piska bat ateratzeko. Horietako bat 'Aspirina para dos' izan zen, Woody Allenek idatzitakoa. 1985ean estreinatu zuten, Jokin Cueto zuzendari zutela. Hurrena 'El soldado Sweyck' izan zen, Bertold Brecht handiarena, gero 'Eqqus', Peter Shafferrek idatzia.

Mikel Garmendiaren lana askotan goraipatu dute egunkarietan, beste askorenarekin batera. 'Aspirina para dos' egiten ari zirenean, hau irakur zitekeen Egin egunkarian: 'Además de Ramón Agirre, componen el reparto Mikel Garmendia en una estupenda caracterización de Humphrey Bogart;...'. Obra horrek arrakasta handia lortu zuen Euskal Herrian, euskaraz ere eman zutelarik.

Beste obra aipagarri bat 'Agur Eire agur' dugu, 1988an antzeztua. Egin egunkarian ziotenez, 'Obra honetan zenbat lanengatik ezagunak diren aktore ugari hartzen dute parte, besteak beste Mikel Garmendia, Carlos Zabala, Iñaki Sarasola... Obra ikusgarria eta pena merezi duena beraz'.

Obra horrek oso ondo funtzionatu zuen, baina Mikelek uste du ez zutela behar adina ibili batetik bestera, oso obra polita zelako.

‘Mendearen hasierako istorio bat da, Brian Field-ena, oso autore eza-guna. Herriska batean gaelikoa galtzen ari da, Inglaterraren kolonizazioa oso gogorra da, eta kolonizazioaren aurkako borroka agertzen da, oso polita zen, asko gustatu zen’.

Halere, artean bultzadarik handiena iristeko zegoen, hain zuzen ere gehienok gogoan izango duzuen obra batekin: ‘Ama begira zazu’. Baina ez gaitezen aurreratu. Gizona ez da antzerkitik bakarrik bizi, eta Mikelen bizitza bide berri batean sartuko zen: Zineman. 1982an Albania konkistatzera abiatu zen euskaldun talde batekin, fraile baten sotana jantzita. Hura izan zen geroztik parte hartu duen 23 filmeetako lehena.



Kareletik filmean, zinean jaso duen sari bakarra lortu zuen pertsonaia borobiltzen.

5 - APAIZ PANTAILA HANDIAN

Mikel artean Antzertin zegoen 'La conquista de Albania'n frailearen pertsonaia egiteko deitu ziotenean. Gauza txikia, baina ilusioa handia, esaten du Mikelek hura gogoratzean. *'Niretzako egundokoa zen. Zinea! Zeinek esango zidan niri zinea egin behar nuela'.*

Hura egin eta segituan Pedro Olea zuzendariak deitu zion. 'Akelarre' filmea prestatzen ari zen eta paper txiki bat zeukan Mikelentzat. Proba batzuek egin nahi zizkion kameraren aurrean, eta laguntzaile bat bidali zuen Donostiara. Maria Cristina Hotelera agertu zen Mikel, eta hango gela batean proba hori egiten ari zela, bat-batean Pedro Olearen laguntzailea begira-begira geratu zitzaion. Mikel moskeatuta. Eta laguntzaileak:

-A mi me parece que tu puedes hacer el papel del cura, que todavía no tenemos a nadie.

Hartu zuen telefonoa eta deitu zion Oleari Madrilera.

-Me parece que tengo al cura aquí.

Eta Oleak:

-¡Hazle una prueba y mándamela!

Irakurketa bat egin zuen Mikelek, eta handik egun batzuetara etxera deitu zion Oleak:

-¡El papel de cura adjudicado para tí!

Gidoia bidali zion eta orduan hartu zuen ezustekoa Mikelek, ezusteko ona. *'Jode, gidoia ikusi nuenean, klaro, bakoitzak bere paperari begiratzen dio, ea zenbat esaldi edukiko dituen, eta orri batean azaltzen nintzen, eta beste batean, eta beste batean, guztira 16 sekuentziantan edo azaltzen nintzen, hura neretzat Hamlet egitea bezala zen'.*

Madrilen 'Akelarre'ren filmazioan ari zela ekoizpen-etxe ingeles batetik deitu zioten. Zuzendari gazte bat, geroztik oso ezaguna eta baloratua bilakatu dena, bere lehenengo filmea egin nahian zebilen: Stephen Frears. Filmea: 'The Hite'. Bertan hartu zuen parte, besteak beste, Fernando Rey ospetsuak. Eta Mikelek. Luzemetraia zen, eta aktore ospetsu gehiago bazituen: Tim Roth, Terence Stamp. Calatayudeko 'Monasterio de Piedra' delakoan filmatu zituen Mikelek bere eszenak. Horrela, urte batean, 1982an, hiru filme lotu zituen bata bestearen atzetik. Hasiera bikaina benetan.

Bere burua pantaila handian nola ikusten duen galdetu nion: *'Tkusiaren poderioz ohitu egiten zara. Hasieran zeure burua ondo ikus-tea zaila da, beti pentsatzen duzu, Dios, nik eszena hori orain harra-patuko banu ez nuen ba horrela egingo! Batzutan hobeto ikusten duzu zuere burua, bestetan zero ematen diozu zure lanari, baina bueno, badakizu hori aktore guztiei gertatu zaiela, eta ni bat gehiago naiz'.*

Mikelen filmografia oparoan, ordea, bi aro bereiztu behar dira, bere bizitzarekin eta fisikoaren aldaketarekin harreman zuzena dutenak: gizona zenekoa eta argaldu zenekoa. Aipatutako hiru filmeok egin zituenean 116 kilo inguru pisatzen zituen. Ondorengo beste 20 filme-tan 68 kilo inguru besterik ez ditu pisatzen. Gaur ezagutzen duzuen Mikelek ez dauka antz zipitzik ere hiru filme horietan agertzen den pertsonaia gizen eta tripontziarekin. Ez zenuteke ezagutuko. Mikelek berak ere ia ez zuen bere burua ezagutu 20 egun koman pasa ondoren, esnatu eta 56 kilo gutxiagorekin ikusi zuenean.

6 - NIREAK EGIN DU

‘Legionella’ deitutako gaixotasun ‘xelebre’ bat harrapatu zuen Mikelek, eta ‘xelebrea’ dio berak, garai hartan, 1984ean, nahiko gaixotasun berria zelako; ez zekiten gauza handirik hari buruz. Sendatzea gaur baino zailagoa zen.

Barcelonara egindako bidai batean harrapatu zuela uste du. Goizetik gauera UVIn aurkitu zuen bere burua. 40 egun eman zituen han, horietako 20 koma egoeran. Gero gelan beste 110 egun behar izan zituen. Guztira bost hilabete pasa zituen. Jipoia izugarria izan zen Mikelen gorputzarentzat: 116 kilorekin sartu zen eta 60kin atera.

Bere irudia eta bizitza dena aldatu zen. Ahotsa galdu zuen, trakeotomia bat egin ziotelako arnasa hobeto hartzeko, eta gero, berreskuratu zuenean, oso ahots berezia geratu zitzaion, gaur ezagutzen diogun hori. *‘Baina tira, pentsatu nuen, ahots horrek pertsonajeari halako berezitasun bat emango dio’.*

Umoreak umore, larrialdi latza pasa zuen Mikelek. *‘Nik neure burua 60 kilorekin ikusi nuenean, pentsatu nuen, adios, nireak egin du!’.* Baina ez, harenak ez zuen egin artean.

Irudia aldatuagatik ere, antzerkirako sena ez zitzaion desagertu. Hori bai, potoloarena egitetik argalarena egitera pasa behar izan du. *‘Nik uste lehen neukan vis komiko hura ez dudala galdu. Hasi nintzenean piska bat bide horretatik hasi nintzen, eta orain ere gehienbat horretarako deitzen didate’.*

Mikel gehienbat komedia egiteko deitu badute ere, gogoko izango luke pertsonaia serioagoak egitea ere, beste genero batzuek lantzea, baina berak dioten bezala, *‘lan honetan norberak ez du aukeratzen, zu aukeratzen zaituzte bestee’.*

Legionella horrek ondorioak utzi dizkio Mikeli. Baina ez zion lanerako gogorik kendu.

Artean sendatzen ari zela, Antzertik obra bat egitea erabaki zuen, 'La danza de la muerte', August Strimberg-ena. Profesional mailan egitea erabaki ere, aktore eta parte hartzaileentzako soldata eta guzti. Lluís Sola kataluniarrak zuzentzea nahi zuten, baina hark ezin zuen Donostiara etorri. Orduan, aukeratutako aktoreak Vic-era joan ziren, Kataluniara, zuzendariarekin lana egitera.

Aukeraketa probak egin zituztenean, Mikel oso ahul zegoen artean. Ibili ere justu-justu ibiltzen zen, baina hartu egin zuten. Eta han joan ziren lau aktore Vicera, hilabete batzuek pasatzera: Mikel Garmendia, Isidoro Fernandez, Kontxu Odriozola eta Aitzpea Goenaga.

Bigarren hilabetean Bernardo Atxaga agertu zen, obraren euskarazko bertsioa prestatzera, 'Herio dantza' izenburupean. Ostatu batean egiten zuten lo, otorduak eta dena.

Obrak ordea, ez zuen arrakastarik lortu. *'Nik ez dakit zergatik, jende-ari ez zitzaionlako gustatu, edo gu ez geundelako ondo, nik ez dakit zer pasatu zen, baina iraupen laburra izan zuen obra hark. Nik uste egin genuen lanarekin emaitza hobea espero genuela denok. Gauzak horrela izaten dira, gehien espero duzunean ez da ateratzen'.*

Garrantzitsuena ez da obra, Mikel baizik. Bereak ez zuen egin. Artean pertsonaia askoren larruan sartu behar zuen; artean maiz hunkitu behar gintuen.

7 - TALENTUAREN BERPIZKUNDEA

Gaixoaldi larriaren ondoren, Mikelen urterik onenak etortzeaz zeuden; zain zeuzkan, txoko batean, euskal antzerki eta zinemagintzan dagoeneko antologikoak bilakatu diren pertsonaiak, Mikelek bizitza eman zien pertsonaia liluragarriak.

‘Herio dantza’ aipatu dugu; bere arrakasta eskasa aipatu du Mikelek. Hala ere, obra horren emanaldi bat oso garrantzitsua izan zen Mikelentzat.

Emanaldi hartan Mikelen bizitzan eragin handia izan duen pertsona bat zegoen: Anjel Lertxundi idazlea. Mikel bere osasuna indartu eta bere aktore karrera berpiztu nahian zebilen; Lertxundik ‘Hamaiseigarrenean aidanez’ bere nobelarekin filmea egiteko enkargua onartua zeukan. Biek zeukaten elkarren beharra: Lertxundik aktore bat behar zuen, eta Mikelek bere talentuari zipriztin berriak aterako zizkion zuzendari bat behar zuen.

Mikelek obran egiten zuen lana asko gustatu zitzaion Lertxundiri. Proba bat egin zion kameraren aurrean, eta Kornelioren papera eman zion. Domingorena Felipe Barandiaranek egin zuen, eta honen emaztearena Kontxu Odriozolak. Hori izan zen argaldu ondoreneko lehenengo zine-lana Mikelentzat. *‘Anjel Lertxundi oso tipo majoa ikusi nuen, eta niretzat oso gauza interesgarria izan zen bera ezagutzea eta pelikula egitea. Gero ‘Kareletik’ egin zuen eta nirekin kontatu zuen berriro. Berarekin izan dudana esperientzia oso ederra izan da, eta gustatuko litzaidake beste gauzaren bat berarekin egitea. Bera da Goenkaleko gidoilarien buru baita ere, eta nik uste nik egiten dudana pertsonajea, Joxe Marirena, berak nirekin pentsatuta sortutakoa dela, nire neurrira egin zuela pentsatzen dut’.*

Filmea euskaraz egin zen oso-osorik. Halamoduzko kritikak izan zituen, baina hor ere, askotan bezala, Mikelen lana goraipatu zen.

Egin'en, esate baterako, irakurri zitekeen: '...historioak mami aberatsa baldin badu pertsonaiak nahiko ahulduak gelditzen dira. Hasieratik bukaeraraino jokaera berdina dute, ez dira ezertxo ere aldatzen. Joera honetatik kanpo, Mikel Garmendiaren lana aipatu behar da eta baita ere filmearen zehar agertzen diren pertsonai herrikoi guztiena'.

Horren ondoren, eta esperientzia ona oinarritzat hartuta, beste elkarlan bat egin zuten idazle/zuzendariak eta aktoreak: 'Kareletik' filmea. Hor sortu zuen Lertxundik Mikelentzat propio egindako pertsonaia, gero Mikelen antzezpenak, bere lanari ezarri zion samurtasunak ahanztezin bilakatuko zuen pertsonaia: Balantxas.

Pertsonaia horrekin lortu zuen Mikelek zineman eman dioten sari bakarra: Cartagena del Mar-eko Itsasoko Zine Jaialdian aktorerik onenaren saria 1987an.

Bere lanik borobilenetakoa lortu zuen Mikelek filme honetan. Egunkariak ikusi besterik ez dago. 'Deia'n Manu Pagolak idatzi zuen: 'Patxi Bisquert, Luis Iriondo, Felipe Barandiaran, Mario Pardo son buenos en su cometido y sobre todos ellos destaca el personaje Balantxas (Mikel Garmendia) en una interpretación definitiva, recreando al hombre al que las circunstancias le han podido'.

Egunkari berean Emy Armañanzasek zioen: 'Mikel Garmendia, que también ha trabajado en papeles secundarios en 'La conquista de Albania', 'Akelarre', etc., centra, con Balantxas, la atención de la película'.

Pello Salaburu: 'Denen gainetik, Balantxas, herriko mozkortia, Mikel Garmendiak paregabeki osatzen duena'.

Santiago Aizarna: '... (la película) cuenta con una buena interpretación por parte de algunos actores como Mikel Garmendia, que hace una memorable creación de su personaje Balantxas'.

Garai hartan Mikelei kalean 'Balantxas' deitzen zion jende askok, eta gazteen artean ere modan jarri zen, norbaitek gehiegitxo edaten zuenean, hari Balantxas deitzea.

8 - BALANTXAS MOZKORRAREN MITOA

Balantxas Mikel da, dudarik gabe. Baina era berean Balantxas mozkor bat da, herri guztietan dauden mozkor horietako bat. Denok eza gutzen ditugu.

Aktoreak asko fijatzen dira egunero ikusten duten jendearengan, eta Mikelek ere aitortzen du joera hori, eta gero, nahi gabe bada ere, ikusitako gauza asko aprobe txatzen duela pertsonaia bat osatzeko. Normalean ez da propio pertsona baten atzetik joaten harengandik zerbait ikasteko, baina Balantxasen kasua ezberdina izan zen.

‘Andu oso tipo bizkorra da. Orion bazegoen gizon bat, hil zen, eta Anduk beti ekipoko bat bidaltzen zuen niregana, esanez, ‘hi, eraman Mikel eta ibili ezak hortik, egin ezazue txurrit piska bat, gehiegi ere ez!’. Neurria hartu behar genion zeren gero filmatu egin behar izaten zen. Eta horrela Orion gizon haren segika ibiltzen ginen ekipokoa eta biok. Benetan aberasgarria zen tipoa, haren imintzioak eta keinuak nik asko kopiatu nituen pelikularako. Tabernara joan eta haren ondoan egoten ginen, baina hura segituan konturatzen zen gu zerbaiten bila bagenbiltzala. Hura konturatzen zen ni haren atzetik zerbaiten bila nenbilela. Nik lortu nuen herrian oso jende gutxik lortu zuena. Gizon hark ez zuen onartzen inork gonbidatzea, ez zuen nahi izaten eta beti uko egiten zien guztiei. Eta nik kafe konpleto batera gonbidatu nuen eta berak onartu egin zuen. Tipoa beti marrean ibiltzen zen, beti zapuzkeriatan, oso misantropoa zen, baina nirekin bazuen halako zera bat. Eta behin esan nion etxekoandeari, ‘kobrai-dazu horren kafe konpletoa’, ‘Ez dizu hartuko’, berak, baina hartu zuen’.

Balantxas, pertsonaia herrikoiaaren eredu izateaz gainera, aktore lanaren eredu ere bada, pertsonaia nola prestatu behar den erakusten duena. Jende guztiak bere burua noizbait Balantxasen moduan errekonozitzen duenean, edo bera bezalako bat ezagutzen duela gogoratzen duenean, pertsonaia hori jende horren bihotzean sartu den seinalea da. Eta Mikelen bidez sartu zen Balantxas filmea ikusi zutenen bihotzera.

Ez ditu, ordea, esperientzia guztiak hain samurrak izan. Mikelek gogoan du beste zine zuzendari bat. Ea pertsonaia nola nahi zuen galdetu zion Mikelek: 'Oye, ¿Tu esto por donde lo enfocarias, este personaje lo haré más patético, o más tierno? ¿Es más de llorar o más de compadecer?'. Eta zuzendariak: 'Oye, se supone que eres actor'. Mikel moztuta geratu zen, eta berak ulertu zuen honako hau edo esan nahi ziola: 'Vaya actor de mierda que eres si me tienes que preguntar eso'. *'Gu antzerkian ohituta geunden guri, hasieran batez ere, paperak oso markatuta ematen, pertsonaje hau handik edo hemendik, nola hartu behar zen seinalaturik, baina hori antzerki zuzendariak egiten dute. Zinekoek ardura gehiago edukitzen dute planoaren montajea, argia, interpretazioa baino, eta interpretazioa aktorearen esku uzten dute gehiago'.*

Geroztik, esana dugun bezala, Mikelek filme askotan hartu du parte, gehienetan paper txikiak eginez, sekundario lanak. Horietan ospetsuena, beharbada, 'Airbag' dugu. Minutua inguru ateratzen da filme horretan, eta horretarako zortzi egun eman zituen Madrilen. *'Nire papera huskeria bat zen, baina zortzi egun pasa nituen Madrilen, a cuerpo de rey, oso ondo ordainduta, hotelik onenetako batean, nire emaztearen egonaldia ere dena ordainduta. Liluratuta geratu nintzen. Nik eguneko gehien kobratu dudana pelikula hori izan da. Nire agerpena guztira minutu bat izango da, askoz gehiago ez. Nire bizitzan gehien ordaindutako minutua hori izan da'.*

Beste lan aipagarri bat, 'Maite' filmea. Kuban hilabete eman zuen Mikelek filmaketan. Hor berriro bigarren mailako paper bat antzertzen du, Txomin da bera, angulen zaintzailea. *'Nahiz eta protagonista ez izan, jende asko geratu zen nire lanarekin. Gustora hartu nuen, eta gainera zuzendariak, Karlos Zabala eta Eneko Olasagastik, ezagutzen ninduten eta trajea piska bat neure neurrira egin zuten'.*

Habanan izugarritzko arrakasta izan zuen filmeak, eta hango jaialdi batean publikoaren saria jaso zuen. Ehundaka mila ikusle izan zituen.

Mikeli aspalditik galdetu nahi nion gauza bat aurkitu dut bere heme-rotekan. Deia egunkarian, honela dio Carmen Alonsok Mikeli buruz: 'Hoy cuenta con experiencia y condiciones y puede llegar a ser un primera fila'. Hau 1987an idatzi zuen kazetariak, baina urteak pasa dira, eta Mikel ez dugu inoiz protagonista baten paperean ikusi. Inoiz ikusiko ote dugun galdetu diot. *'Zergatik ez? Protagonista denak ez dira ez goapoak eta ez altuak izaten. Gainera orain antiheroia asko eramaten da, eta ni hobeto nago antiheroia egiteko, heroia baino. Aukera falta izan zait, edo ez da niretzako moduko pertsonajerik egon, edo agian ez dut tallarik emango protagonista izateko. Sekundario politak egin ditut, eta ni horrekin konforme nago, eta ez litzaidake inportako sekundario politak egiten jarraitzea. Orain, nik ez diot uko egiten ezeri. Badaude egitea izugarri gustatuko litzaizkidakeen gauzak, antzerkian adibidez, badakit ia ezinezkoa dela, montaje erraldoia eskatzen duela-*ko, baina *'La muerte de un viajante'* egitea, Arthur Millerren obra, izugarri gustatuko litzaidake'.

Ametsak amets, esana geratzen da, bada, Mikelen amets hau, norbaitek forma eman nahi badio.



Bi eta bat telesailean ertzainarenak egiten.

9 - EUSKAL ZINEAREN ILUSIO FALTSUA

Euskal zineak izan zuen gorakada nabarmen bat urte batzuetan, baina gero erdi hutsean bezala geratu da bere presentzia. Hor ibili direnen artean porrot sentimendu bat nagusitu da aspaldian. Ez da jakin sortu ziren ahalbideak sendotzen. Euskaraz aspaldian ez da filme bat egin.

Mikelek barru-barrutik ezagutu du euskal zinearen historia, eta luze iharduteko gaia izan arren, bere iritzia ekarri nahi nuke orriotara.

Hemen egon zen halako... ez dut esango ilusio faltsu bat, baina bai lokatzezko hankak zeuzkan estatua bat egin nahia. Cine vasco ez da sekula existitu. Egon da hemengo jendeak egindako zinea, baita euskaraz egindakoa ere, baina ez da konstante bat izan. Paper nagusietan kanpoko aktoreak izaten ziren gehienetan. Ez ahaztu zinea industria bat dela, eta subentzionatuta ez badago horrek kapital aportazioa behar du, eta hori partikular batek egin behar du, edo batzuen artean, eta noski, hemen dirua galtzeko ez dago inor. Zenbait jende ahalegin batzuek egin ditu eta hankaz gora joan zaie dena. Hemen irabaziak lortzea zaila da.

Subentziorik gabe ezin da funtzionatu, eta subentzioak gutxi eman dira, eta gaizki, aldrebes eman dira. Cine vasco ez da inoiz existitu, eta orain gutxiago. Daude tekniko euskaldunak, aktore euskaldunak, zuzendariak, gidoilariak, oso jende baliotsua, eta hemendik kanpora joan direnean oso estimatuak izan direnak, baina nik uste herri txikia garela hemen zine industria bat sortzeko. Orain, pausoak eman behar dira, denok busti behar dugu eta denok indarra jarri, horretan sinesten dut'.

Zineak badu denongan lilura sortzeko ahalmen hori. Eta badirudi zineak egiten duela aktore bat handi. Badirudi zinearen inguruan eratua dagoen amets-itxurako mundu horrek, sariz, edertasunez eta bizitza interesgarritz beteta dagoenak eman diezaiokeela aktoreari hilezkortasuna. Horren ondoan antzerkia gauza txikia agertzen zaigu, bigarren mailakoa.

Eta ez da horrela. Ez aktoreentzat, behintzat. Edo ez Mikelentzat. Bere gogoa zerk betetzen duen galdetuta, hona erantzuna: *‘Satisfakzio handiena antzerkiak ematen du, obra ondo dihoanean. Antzokia beteta ikustea sari handia da beti, bapateko saria, eta hori guri bi obrekin gertatu zaigu batez ere, ‘Ama begira zazu’ eta ‘El florido pensil’ekin. Horiekin aretoak beti beteta izan ditugu. Zenbat eta jende gehiago etorri, zenbat eta arrakasta handiagoa lortu, orduan eta hobeto ateratzen zaizu lana’.*

Atera gaitezen, beraz, zine aretotik, antzokira sartzeko. Joan gaitezen 1987ko arratsalde batera. Egun hartan, Mikelek telefono dei bat jaso zuen. Hariaren bestaldean ondo ezagutzen zituen bi emakume zeuden, Kontxu Odriozola eta Elena Irureta. Zerbait idatzia zuten orri batzuetan, eta Mikeli erakutsi nahi zioten. ‘Txorakeria bat da’, esan zioten Mikeli. Baina txorakeria hartatik atera zen obra ez zen txorakeria bat izan, euskal antzerkigintzak ezagutu duen arrakastarik handiena, beste mito bat Mikelen eta gure herriaren bizitzan: ‘Ama begira zazu’.



Akelarre filmean, Mari Carrilloekin.

10 - BONBA BAT ESKUARTEAN

‘Bi emakume, Kontxu Odriozola eta Elena Irureta, beti zer suma ibiltzen ziren, eta orain ere horrela segituko dute, elkartzen ziren ideia batzuek zirriborratzeko, eta halako batean gorputz piska bat eman zioten istorio honi, eta lotsa-lotsa eginda niri deitu zidaten’.

Obra bi emakume eta bi gizonezkoen artean egin behar zela erabaki zuten. Baina ez zeuden batere ziur obraren kalitateaz. Mikeli deitu zioten honek begiratu bat eman ziezaion. Bildu ziren, irakurri zuen Mikelek, eta segituan ikusi zuen hura bonba bat zela, eta ez txorakeria bat. Beste biak hala ere kezkatu, ‘Hik horrela uste al duk?’, galdezka Mikeli. Eta honek: ‘Baiez ba, sinestaidazue’.

Laugarren aktoretzako Jose Ramon Soroizi deitu zioten. Zuzendaria falta zuten, eta emakumeek: ‘Nori deituko diogu txorakeria honekin?’. Eta Mikel haserre: ‘Dale txorakeriarekin, ez dala ba!’.

Eneko Olasagastiri gustatuko zitzaioala pentsatuz, haritxi deitu zioten, eta baita gustatu ere. Enekoren lana ordainezina izan zen, obrari lotura bat emateko, erritmo bat. Eta aurkezpen egunean, nahiz eta lehenagotik ziur zeuden oso polita aterako zela, ikusi zuten ‘eskuartean bonba bat’ zeukatela, eta hala izan zen.

Baina non uste duzue egin zutela aurkezpena? Errezilgo baserri batean. Kontxu Odriozolaren senarraren baserrian. Sendiartekoak bildu zituzten, auzokoak, jende xumea, eta izugarri gustatu zitzairen. Gauza intimo bat izan zen; jende herrikoia, arruntak ea zer erantzun ematen zuen ikusi nahi zuten.

Hurrengo egunean Zestoako bainuetxean eman zuten. Oraingoan antzerki munduko jendearentzat, aktore, kritiko eta abarrentzat, gonbidapenen bidez.

Laukote protagonista beldurrez zegoen, ‘ea zer palo’ emango zieten, baina berehala konturatu ziren obrak benetan funtzionatzen zuela.

Eszenatokira atera bezain pronto, minutu gutxira, jendea barrez leher-
tzen ari zen.

Gero jada emanaldi irekia eskaini zuten Zestoan bertan. Han zen Felix Ibargutxi, eta hau idatzi zuen 'El Diario Vasco'n: 'Oso harrera ona izan zuen igandean 'Ama begira zazu' antzerki emanaldiak (...) Ikusleen barre artean burutu zen estrenaldia. ...lehenengo aldia da lau aktore profesional biltzen direna areto txikietan eskainiko den ikuskizun apal bat burutzeko. (...) Euskaldunon zenbait ohituraren parodia egiten da, finezia handiz, baldarkeria eta gehikeriatan erori gabe. (...) Hizkera aldetik ondo asmatu dutela esan genezake. Aktoreek, nork bere herriko hizkera erabiltzen du, eta hartara freskotasuna darie jardunei'.

Begoña del Tesok 'Deia'n: '...son hora y veinte minutos de risa loca, despendolada, ininterrumpida, salada, resalada, popular, chispeante y cabronceta (...) (Los actores) son unos frescos y hacen unos pasatiempos frescos. Frescales. Y tienen un ritmo de alucine. Y lo dominan todo, su territorio, sus entradas y salidas. Saben con quién estan, lo que quieren contar, como lo quieren contar'.

Eta laudorio amaigabeen txanpa gaurkoz amaitzeko, J.J. Iribarrek 'Egin'en idatzitakoa: 'Azpimarragarriena hizkuntzaren erabilpena izan zen. Antzerki taldeak kaleko hizkuntzaren alde apostu egin du (...) Erderakada ugarirekin, baina hori egunerokoa da gure artean, eta ez genuke ahaztu behar euskal antzerki zahar eta goraipatuena, Barrutiaren 'Gabon ikuskizuna', hala moldatua dagoela. Alde horretatik tradizio luze baten jarraitzaile besterik ez dira. Ez da bide bakarra, baina ezta bazterrean utzi behar duguna ere'.

Hamaika hilabetetan eman zuten obra, 200 emanaldi eskainiz. Hau da, 330 egun ingurutatik, 200etan antzeztu zuten. Sekulako marka, paregabea, hautsiezina.

11 - ANTZERKIAREN ORDUA HERRI TXIKIETAN

Handik aurrera emanaldiak bata bestearen atzetik etorri ziren. Eta aretoak leku guztietan beteta, beti beteta, bai herri txikietan, bai herri handietan. Bilbon eta Donostian zazpina aldiz izan ziren, eta saio gehienak sarrerarik gabe geratu ziren. Eta sekula santan antzerki bat egin ez zen herri txikietan ere berdin.

Telefonoz deitzen ziguten, esanez: 'Aizu, Bidanitik deitzen dizuet, erabaki dugu festetan polita litzakeela zuen antzerkia ematea, baina ez zinateke hona etorriko, ezta?' Eta guk, 'Zergatik ez ba, bai pozik'. Eta eurak igual: 'Baina hemen frontoia besterik ez daukagu', edo elizako ataria bestela, eta guk, 'Joango ez gara ba, inora baino gustorago!'

Joaten zirenean herria zain edukitzen zuten, afaria prestaturik, etxeak zabalik dutxa bat hartzeko. 'Hori guretzat oso pozgarria izan zen'.

Herri gehienak pasa zituzten, eta hamaika hilabate ondoren utzi egin zioten. Gero euskal telebistan grabatu eta eman zuten obra. Jende askok bideoan hartu zuen orduan. Jende askok aitortu dio hori Mikel berari, esanez: 'hi, etxean aspertuta geundean, telebistan bat eta bestea ikusi eta ez genian ezer aurkitzen, eta baten batek esan zian, hi, zergatik ez diagu Ama begira zazu jartzen? Eta berriz jarri genian, 30 aldiz ikusi diagu, baina beti lehengo aldia balitz bezala barrez lehertzen gaituk'.

Eta Mikelek dio ondoren: *'Gauza hauek aditzeak, obra egin genuenetik 14 urte pasa direnean, poz handia ematen du. Benetan lortu genuen orduantxe konexio soziala'.*

Ez da esaldi txarra epitafio batean jartzeko. 'Ama begira zazu' obrari jarriko diogu epitafioa, Mikelek, oraindik, gauza asko baitauzka kontatzeko, egiteko eta bizitzeko dituen bezalaxe.

12 - ETA GIZONA UME BIHURTU ZEN

Edo ume jantzian agertu ziren behintzat aktoreak, 'El florido pensil' egiteko. Arrakasta izugarria lortu duen beste obra bat. Mikel Garmendiak parte hartu duen beste obra bat. Bere presentziarekin arrakasta borobiltzen lagundu duen beste obra bat.

Obra honek bigarren saria jaso zuen Espainia mailan. Argentinan egon dira emanaldiekin, Parisen, Madrilen bost hilabetez, han 100 funtzio egin dituzte, Teatro La Latinan, abuztuan Donostian eskaini dute bederatzigarren aldiz, eta beti, nahiz Victoria Eugenia, nahiz Principalen, 'No hay localidades' txartela jarri behar izan dute.

1996an eman zuten lehen aldiz. Sei urte daramatza antzokietan. Andres Sopeñak idatzia, zuzendari gisan Mireia Gabilondo eta Fernando Bernues dabilta, Ttanttakakoak. Dena den, urteotan aktoreak aldatuz joan dira, dozenaren bat pasa direlarik.

Frankismo garaiko eskolako istorioak kontatzen dira obra honetan. Hain aspaldiko garaia isladatzeko arrakasta handia izan du. '*Guk pentsatzen genuen gazte jendeak ere mundu hori ezagutuko zuela gurasoen bidez, gurasoak zentzu horretan nahiko txapak gara, eta zerbait kontatzeko orduan gure garaiko eskola eta giroa kontatu ohi dugu*'.

Oso aberasgarria izan zen Madrileko egonaldia. Mikelek, tamalez, ezin izan zuen joan. Bere ordezkoko bat joan zen.

La Latina Lina Morganek daukan areto partikular bat da. Han jendea dauka lanean, eta noizean behin bera handik pasatzen da, 'Bueno, ¿Qué tenemos?' galdezka. Eta esan zioten, 'Estos son de San Sebastian', eta Lina Morganek, 'Pero estos no son conocidos, poco van a durar aquí'. Izan ere, Madrilen obra asko eskaintzen dira, eta ezezaguna baldin bazara egun gutxi egiten dituzu han, nahiago dutelako arrakasta ziurra eskaintzen duen jende ezaguna. Orain, ahoz-ahoko aipamenek asko funtzionatzen dute, eta obra baten inguruan halako lilura bat sortu eta zabaltzen hasten bada, hilabateak pasa ditzakete obra eskaintzen.

Lina Morganek ikusi zuen 'El florido pensil', eta asko gustatu. 'Pero, ¿ Esto qué es?', esaten omen zuen. Gau hartan bertan kamerinoetara joan zen zorionak ematera, 'Esto es uno de los mejores proyectos que he visto, con esto podeis arrasar' esanez.

Hasieran 20 egunetarako joan ziren, eta 5 hilabete pasa zituzten, egunero aretoa betetzen zutelarik.

'El florido pensil' i buruzko hemeroteka izugarria da, dozenaka orri ditu, denetan oso kritika onak idatzi dituztelarik. Kritika horiek agerutako egunkari batzuek hauek dira: La Voz de Galicia, ABC, La Rioja, El Norte de Castilla, Agueda, Hoy Badajoz, El Bolo Feroz, El Adelantado de Segovia, El País, El Mundo eta beste asko.

Dena den, Mikel ez zen obra horrekin Euskal Herritik kanpo atera. Bai beste batekin: 'La cacatua verde'. Madrileko Maria Guerrero antzokian egon ziren, 20ren bat emanaldi eskaini zituztelarik. Hasierako bi funtziotan aretoaren laurden bat edo bete zuten, baina gero eta ikusle gehiago hasi ziren hurbiltzen, eta azkenerako aretoa bete egiten zuten. Ordea, horrelako arrakastarik espero ez zuen enpresak antzokia halako egunetik aurrera kontratatua zeukan beste talde batentzat, eta ezin izan zuten luzatu, eta penaz geratu ziren, bai aretokoak, bai aktoreak.

Hainbeste proiektutan parte hartu ondoren, esan liteke Mikelek antzerkian daramatzen 20 urte hauei zukua ondo atera diela, baina galdera bat bota nahi nion: Lortu al duzu nahi zenuen guztia? *Frustrazio handirik ez daukat. Beti geratzen zaizu pena bat, hura gustora egingo nuke, edo oraindik inork ez dit deitu beste hau egiteko, baina ni egin dudanarekin konforme nago, eta gainera jarraitzeko asmoa dut, etorriko dira gauza berriak. Nik, gainera, denei bere alderdi ona aurkitzen diot, eta nik uste enkargu guztiak direla aberasgarriak eta politak'.*

Agian baikortasun hau izan ez balu ez zitzaion oso eramangarria egingo antzerkiaren mundua.

13 - ANTZERKIA, PLAZERRA ALA GURUZBIDEA?

Mikelek hitz egiten duen bakoitzean, bere pasadizoak, burutazioak eta iritziak kontatzen dituen bakoitzean, antzerki-munduari ateak zabaltzen ditu, guk, kanpoan gaudenok, mundu hori barrutik nolakoa den ikus dezagun. Hori sentitzen nuen nik egin nizkion elkarizketetan, eta hori nahi nuke zuk, irakurleak, sentitzea liburu hau irakurtzerakoan.

Kontuan harturik Mikel jadanik urtetan aurrera zihoala hasi zela antzerkian, jakin nahi nuen ea ez al zaion nekagarria egin batetik bestera joatera behartzen zaituen lan hau. *‘Hasiberria izanda gogoz zabiltzanean ez zaizu nekea egiten. Hombre, zenbait egunetan, jaiegunetan edo, obra bat egitera joan behar horrek perezeta handia ematen du, baina ni oso gustora ibili naiz. Hemendik kanpo ibiltzea zer den ez dakit, egun batean Toledon, hurrena Albaceten, horrelako distantzia luzeetan dabiltzanek esaten dute astuna dela. Ni Euskal Herrian ibili naiz, igual aste batean hiru, lau edo bost emanaldi eskaintzen, baina tira, funtzioa bukatu eta handik ordu betera etxean zaude, beti ere afari mokadu bat egin eta gero, hori nahiko eramangarria da, gehienbat hurrengo goizean jaikitzeke presa handirik ez baduzu behintzat. Gustoko lana eginez gero, penak ere gutxiago izaten dira’.*

Antzerkiak beti izan du bohemiarekin lotura estua, eta Mikel arlo horretan nola moldatu den ere jakin beharko dugu. *‘Bohemio ikutua gehienek daukate antzerkian, baina jende zintzo askoa ere ezagutu dut, jende formala. Nik bietatik daukat piska bat. Antzerkiaren ordutegiak ere halakoxeak dira. Orain, hori askok aitzaki bezala erabiltzen dute hortik zehar iji-aja ibiltzeko. Baina egia da mundu horretan sudurra sartuta eduki behar baduzu ez daukazula gauaz ibili beste erremedioirik. Ni bohemio samarra banaiz, baina edozein egoeratarara moldatzen naiz. Ibili egin behar bada ibili egingo naiz, entsaiatu behar bada entsaiatu, etxera joan behar bada etxera joan. Edozein modutara, ni nahiko ameslaria izan naiz beti’.*

Eta disziplina aldetik nolakoa ote da? *‘Entsaioetan eta beti puntuala izan naiz. Disziplinatua ez naiz ni ezertan, baina antzerkian beste inon baino gehiago, nik benetan sentitzen dudalako, nik badakit hortik pasatu behar dela, eta nahiko saiatuta egin ditut gauzak, indartsu hartu ditut gauzak, baina nire izaera naturala ez da han disziplinatua izatea, kostatu egin zait’.*

Mikelek gauza bat izan badu ona, hori memoria da. 56 urte dauzka, eta dohain hori ahuldu egin ote zaion ere galdetu nion. *‘Aurten sei hila-bate eman ditut bajan, eta orain beldur piska batekin nabil. Memoria muskulo bat da, eta lantzearen poderioz desarroilatu egiten da. Nik uste gaur egun memoria inoiz baino hobea dudala, testu bat memori-zatzeko eta hurrengo egunean edo egun gutxitara hura botatzeko. Beharbada orain dela bi urtetako kontuak gogoratzeko, horretan moteldu zait’.*

Memoria lantzeko ba ote dago ariketarik, trukorik? Antzerkirako ezinbestekoa, oinarrizkoa da memoria. Nola landu du Mikelek? *‘Beti da fidagarriagoa testua ikastea, ideiak orokorrean hartzea baino. Gero testu hori zeure erara molda dezakezu, esaten duena errespetatuz, eta oina esaten zaiona errespetatuz. Oina da hitz bat, zuk bukatze-an besteari hasteko seinalea ematen diona, hor ezin duzu beste hitz bat sartu, bestela zure laguna galdu egiten da. Baina testua ondo ikastea komeni da, gero esateko garaian piska bat zeure erara esango baduzu ere. Ziurtasun horren gainean, inprobisaketa itxura eman dezakezu, horrek freskura ematen dio’.*

Antzerkia egiteko orduan, beharbada hasierako uneak izango dira gogorrenak. Aktore guztiek aipatzen dituzte hasierako nerbioak, urdail-zuloan egiten den korapiloa. Nola baretzen ote du larritasun hori Mikelek? *‘Ni tipo lasaia naiz, nik beldur eszenikorik ez dut sekula sentitu. Gainera memoria ona daukat, eta ni beti konfiantza osoarekin agertu naiz, baita estreno garaian ere. Antzerki areto batean biluzik zaude, gaizki eginez gero ez dago esaterik barkatu, hemen kale egin dut eta berriro esango dut’.* Ez dago atzera egiterik. Nik beti lasaitasun

handia izan dut, agian beti ondo prestatuta joan naizelako, neure eska-sean, hori bai, neukan dena eman dut. Horrek asko balio izan dit kasti-netan aurkezteko, beste askok baino gehiago eman izan dut probetan'.

20 urteko ibilbidean une txarrik, ahazteko modukoak diren horieta-korik izan ote du? *Txisturik ez dut inoiz jaso. Batzuetan segituan kon-turatzen zara jendea ez dagoela oso gustora, mugimendu asko dago aulkietan, edo batzuek alde egin dutela. Beti paper batean erosoago zaude bestean baino. Talde barruan ere zer kimika dagoen ikusi behar da, obrak arrakasta duen edo ez, zenbat jende joaten den. Nik suertea izan dut, egin ditudan gauzetan frakaso handirik ez dut inoiz eduki, edo beti egon da zerbait salbatzeko modukoa, edo nire papera salbatu dute, edo obra gustatu egin da, nahiz eta ni ez aipatu bereziki. Beti eduki dut motiboren bat pozik ateratzeko nire esperientzia guztietatik. Damutu, ez naiz ezerekin damutu. Gauza batzuek borratuko nituzke, noski. Sentitu izan dut ez diodala ezer aportatu jendeari, baina denetik egin beharra dago, eta denetik ikasten da'.*



Kareletik: Balantxas moxkortuta bakar-hizketan.

14 - MIKEL, BALANTXAS, POLONIO, JOXE MARI

Aurpegia askotan aldatu du Mikelek, jantziak ere bai, eta izena. Haren lanak ikusten zituztenek, barru-barruraino sartzen zuten Mikelek antzeztutako pertsonaia, hala nola azkenean pertsonaia izena eransten zioten Mikel berari. Kalean dihoala askotan deitu izan diote Balantxas. Gero, 40 astetan zehar euskal telebistan umeentzako programa bat egin zuen, 'Banan banan' deitua, eta han Polonio pertsonaiarena egiten zuenez, umeek Polonio esaten zioten kalean. Azken aldian, Goenkaleko pertsonaia nagusitu da Mikelen gainetik, eta orain Joxe Mari deitzen diote askok. Batzuetan baita etxean ere, nahastuta.

Denetik egin beharra dago, eta denetik ikasten da, esan digu Mikelek lehenago. Zer egin du bada berak, antzerkiaz eta zineaz aparte? Bada, gauza hauek: laburmetraiak, publizitateko iragarkiak, Ipurbeltz eta Zapatodos-enak, esate baterako, bikoizketa, programa didaktikoak, irрати programak... eta gauza guztien gainetik, telebistako serietan hartu du parte. Gehienetan ETB1ean, baina baita ere TVEan, eta Kataluniako TV3an. Hauek dira serie horietako batzuen izenak: Brigada central, Bai horixe, Hau da AU, Jaun eta Jabe, Bi eta bat, Del Miño al Bidasoa, Maite. Eta denetan nagusiena, Goenkale.

Goenkale 1994ean hasi zen. Beraz, aurreko zortzigarren urtean sartu da. Mikelen pertsonaia hasieratik dago bertan, eta berak dauka agerpe-
nen marka: 1.000 atal baino gehiagotan agertu da. Ez da harritzekoa, 1.000 ataletan Joxe Mari deitu dioten gizonari etxean ere Joxe Mari deitzea.

Aktoreen artean bada telebistarekiko mesfidantza bat, telebista-
zaborra nagusitzen ari den garai hauetan batez ere, baina Mikelek gau-
zak garbi dauzka. *Telebista pizti erraldoi bat da, eta horrek manten-
tzekeo janari asko eskatzen du, denetik jaten du, eta zuk denetik egin
behar duzu, zeren mundillo honetan bizitzea zaila da telebistarik gabe.
Telebistak eskaintzen dizu lan gehiena, eta ordaindu ere berak ordain-*

tzen du ondoen. Pelikula batean, lanegun bakoitzeko gehiago kobratuko duzu, baina zineko egunak gutxi izaten dira. Eta telebistan, errekonozimendu bat lortzen baduzu behintzat, askoz lan gehiago egiten duzu. Alde horretatik, nahi ta nahiezkoa da telebistan lana egitea. Nik uste oso medio polita dela. Ni gustora nabil, eta ez naiz damutzen egin dudan ezerekin'.

Zortzi urte daramatza Goenkalen. Urtero hamar hilabetetako lana ematen dio Goenkalek. Denbora horretan apenas beste ezer egin dudan, niri Goenkalek eramaten dit denbora guztia, dedikazio osoa izan da'.

Ea telebistan jubilatuta nahi lukeen galdetu nion. Ez litzateke jubilazio txarra izango, nire mundillo honetan egindako lan batekin izango litzateke, eta oraintxe bertan sinatuko nuke. Bueno, hobeto esanda, nik sinatuko nuke sekulan ez jubilatzea, zeren bedekazio hori badauka lan honek, ez zara inoiz zaharra, eta osasunak eta buruak laguntzen badizu ez daukazu erretiratu beharrik'.

Gai serioetan sartu garenez, hogeitau urteotan gertatu ez zaion aukera bat aipatu diot, lanik gabe geratzearena, ea zer sentituko lukeen, zer egingo lukeen. Sekula ez naiz egoera horretan egon, baina gertatu liteke. Hor zerikusi handia dauka zeuk noraino daukazu itxaropena jarrita. Nik apetentzia izugarririk ez daukat, ni neure lantxoak txarra-ka-txarra egiten ari naizen bitartean ondo ibiliko naiz, eta sekula ez dut pentsatu egunen batean lanik gabe geratzerik, ez dakit nola hartuko nukeen. Espero dezagun hemendik aurrera ere lanean jarraitzea'.

Berak ez du esan, baina nik badakit zer egingo lukeen lanik gabe geratuz gero, zertan emango lukeen denbora: sukaldaritzan. Sukaldari aparta baitugu Mikel. Egunero 13 lagunentzako gosari, bazkari eta afa-riak prestatzen zituen egunak ez daude hain urrun.

15 - LAPIKO ZIKINTZEN MAISU

Ontzi asko zikintzen omen ditu, baina otordu goxo askoak presta-tu ondoren. Lehenengo gozatua dator, gero lana. Berak, badaezpada ere, fregatzen ez dakiela esaten du. *‘Nire atzetik norbaitek ibili behar-ko du ontzi haiek denak fregatzen’*. Jandakoak merezi badu, egin dai-teke hori ere.

Antzerkia lanbide bilakatu duen hobbya baldin bazuen, sukaldari-tza da hurrengo zaletasunik maiteena Mikelentzat. Ordizian haurtzaroa arrain artean pasa zuen. Horrekin batera, bere aita oso sukaldari ona zen, Ordiziako elkartean beti lanean aritzen zena. Oso famatua omen zen, beti ere afizionatu mailan. Giro horretan zaletu zen Mikel lapiko artean ibiltzera. Lanbide ere izan du urte batzuetan.

30 urterekin Donostiara joan zenean etxebizitza erosi zuen, Buen Pastor enparantzan. Etxebizitza handia benetan. Orduan, pentsioa jar-tzea bururatu zitzaien, gelak aprobetxatzeko. Horrela, etxean zortzi lagun apopilo izatera iritsi da Mikel. Lo egiten zuten, otorduak, eta arropak garbitu. Emazteak lana egiten zuenez, Mikelek egiten zituen otorduak 8 apopilorentzat eta etxeko bostentzat. *‘Niretzako gozamen-a zen, benetan. Gero utzi genuen pentsioa, baina etxerako ahal dud-an guztietan nik egiten dut eguerdiko, libre baldin badaukat behintzat, eta larunbata eta igandetan beti. Denetik egiten dut, arraina, haragia, berdurak, saltsan, erreta, labean... Gauza batean ez naiz ondo molda-tzen, postre asuntoan, ez dut orain arte gauza borobilik lortu. Baina ehiza eta, ez dut esaten berealdiko platoak egingo ditudanik, baina nik egindakoa jateko modukoa izango dela bai. Beharbada plato guztiek gusto berdintsua izango dute, sota, caballo, rey ibiltzen naizelako, baina nire otordu bakoitzean bihotz pusketa bat dagoela esan dezaket, eta mimoz eta gogoarekin eginda dagoela ere bai, eta jenero ona ibili-ko dudala ere bai’*.

Hau dena ezagututa, uste nuen Donostiako elkarteren batean bazkide izango zela Mikel, baina ez, ez du nahi izan, eta esango digu zergatik. *‘Ordiziako Itxaropena soziedadean bazkide nago, gutxi joaten banaiz ere nire kuota ordaintzen dut. Donostiara etorri nintzenean pentsatu nuen, ez noa soziedadean sartzera, bestela horko esklabo bihurtuko naiz, deitzen didatenean, edo lagunartean eskatzen didatenean gustora joango naiz, ez dut ezetz esaten jakingo, eta hortxe ibiliko naiz egunero-egunero irten gabe. Nire bizimodua zeharo aldatuko litzateke, eta horregatik ez naiz elkarte batean sartu’.*

Agian arrazoia dauka Mikelek. Agian eszenatokietatik desagertuko litzateke, lapiko arteko azti bilakatzeko, eta hori ez legoke ondo. Gure antzerkiak, gure telebistak badauka oraindik haren beharra. Euskaldunok geure burua pantailan ikusteko orduan badaukagu oraindik Mikelen beharra.



Kareletik: bere alabarena egiten zuen Lurdes Oruberekin.



Albaniaren konkista: Mikel frailea zen gizagaiso pila haren erdian.



El polizón de Ulises filmean.

Ezkerretik: Ana Mariscal, Imperio Argentina, Mikel eta Aurora Bautista.

16 - BELAUNALDI BERRIEN AURREAN

Mikel aktore beteranoa bihurtu zaigu dagoeneko. Batetik adina, bestetik egin duen lana, landu dituen alor ezberdinak, proiektu askoren arrakastan izan duen garrantzia, sortu dituen pertsonaia ahanztezinak, hori guztia nahikoa litzateke Mikel Euskal Herriko aktoreen artean klasiko bat dela esateko. Ez dakit berari gustatuko zaion.

Hala ere, aurten bost hilabetez bajan egon bada ere, ez du umorerik galdu. Bere omenaldiaren berri aipatu nionean, omenaldiak seinale txarra ez ote diren esan nion, eta berak: *‘Lasai egon, omenaldi egunera arte behintzat iraungo diat bizirik, besterik egin behar ez badut ere!’*.

Bukaera aldera bere asmoei buruz hitz egin genuen. Daukan esperimentiarekin, berak antzerki obraren bat idatzi behar lukeela aipatu nion. Ez da pentsatu gabeko gauza Mikelentzat. *‘Asmoa badaukat, eta jendeak animatzen nau. Ideia sueltoak okurritzen zaizkit, esketxak, baina sekula ez diet gorputzik eman, horiei batasun bat ematea falta zait. Apuntatu ere ez ditut egiten. Disziplina piska bat edukitzea falta zait, paper baten aurrean eseri eta zerbait idaztea. Ez dakit zer izango den, telebistarako edo antzerkirako, seguruenik ez baterako eta ez besterako. Baina jendeak esaten dit, hik dauzkean ideiekin, hik dauzkean ateraldiekin, horri batasun bat emaiok eta zerbait aterako huke’*.

Nik uste irakasle txarra ere ez litzatekeela izango, baina hori ez du entzun ere egin nahi. *‘Klaseak ematen ez nintzateke sekulan ausartuko, ez afizionatu mailan, ezta umeekin ere. Nik beste bati esan ‘hau horrela ez duzu egin behar, honela baizik’, ez nuke jakingo eta ez nintzateke ausartuko inolaz ere’*.

Gaur egunean egiten den antzerkia ez du gehiegi jarraitzen, baina oso ikuspegi baikorra dauka orokorrean euskal antzerkiaz. *‘Nik uste hemengo jendea ia homologatuta dagoela, nik uste igual-igual begiratzen digutela guri edo beste zenbait tokitatik etorritako aktoreei*.

Nahiz eta oraindik egongo den jendea bereizten duena, eta guri buruz 'ba, hau hemengo txorakeri bat izango da' esango duena. Beste jende askok ez dauka aurrejuzkurik eta joaten da gu ikustera, eta nik uste onarpen hori gero eta handiagoa dela. Eta hori urte hauetan lortu da'.

Aktore gazteen ibilbidea ere ez du gehiegi jarraitzen, baina baditu bere ondorioak gazteei buruz. *'Jendea oso preparatuta dator. Gertatzen da orain errazago daukatela, jende bat asko preparatzen da, eta beste batzuek esperientzia handirik gabe kasting batera presentatu dira eta lehenengo lana telebistan izan dute, demanda handia dagoe-lako, edota beraiek irudi polita eman dutelako. Baina ikusten zaie eskola piska bat falta zaiela, hori denboraren poderioz hartuko dute, zeharo tontoak ez badira. Orain, atzetik antzerki mailako heziketa baldin badago, poso hori edukitzea inportantea da. Antzerkitik datorren jendeak gero pantaila handian edo txikian lana egitea errazago dauka alderantziz baino, antzerkiak beste gauza batzuek esijitzen ditu'.*

Azkenean, behintzat, elkarrizketa osoan pentsatua eduki nuen gal-dera bota nion, Mikelek erantzuna derrigor jakin behar zuela pentsa-tuz: Zer izan da antzerkia zuretzat? *'Antzerkia teknika eta barruko indarraren nahasketa bat da. Nik ez dakit ausardia daukazu zeure buruan sinesten duzulako, edota zeure buruan sinesten duzula ikasi egin duzulako, ez dakit zer den lehenengoa, edo trebetasuna, edo zale-tasuna. Ni zaletasunetik hasita joan naiz trebetasunaren bila. Kasu batzuetan igual ez da horrela gertatzen, zuk zaletasun handia eduki dezakezu baina ez duzu balio horretarako, edo alderantziz, batek balio du baina ez da konturatzen hori gustatzen zaionik. Eta kasualitatez sartzen da mundu horretan, eta deskubritzen du aktore handi bat dago-ela bere baitan. Mila bide daude. Nik uste horretara dedikatzea pen-tsatzeko duenak mundu horretan zerbait egitea badaukala pentsatzeko duela. Nire kasuan hala izan zen, nik pentsatzeko nuen mundu honetan zerbaitetarako balioko nuela, egin behar nuela. Balientea izan nintzen, baina nik banekien niri gustatzen zitzaidala'.*

Eta bera ausartu zelako disfrutatu dugu guk bere lanarekin, bere pertsonaiekin, bere komikotasunarekin, bere aurpegiekin, bere ahots kraskatuarekin, bere 116 kilotako gizatasun handiarekin, eta bere 68 kilotako zorroztasunarekin.

Ausardia hori txalotzea besterik ez zaigu geratzen, bere merezimenduen aurrean txapela kentzea, eta isilik egotea, Franz Xaver Kappusek, 1929an, Rainer Maria Rilkeren gutunen argitalpeneko sarreran idatzi zuen bezala: 'Printze batek hitz egin behar duenean, isiltasuna gorde behar da'. Mikel Garmendia da printze hori.



17 - HAINBESTE MAITE DUGU MIKEL!

Aurtengoa urte txar samarra bota du Mikelek. Bajan egon da ia sei hilabetez. Horrek Goenkalen agertzea eragotzi dio. Dena den, telesail ospetsua bere zortzigarren urtean sartu da, eta hor agertu zaigu berriro Mikel, Joxe Mari tabernari bihurtuta.

Antzokietatik ere urrun samar dabil aspaldian. Egin duen azken obra 'Uztailaren 4a Renon' izan da, Javi Cillerorena. Juan Kruz Gurrutxaga aktore azkoitiarrarekin batera estreinatu zuen obra 2.000ko abenduaren 21ean, Santo Tomas egunean, Donostian. Gero Tolosan eman zuten, eta deiak iristen hasi ziren garaian utzi egin behar izan zuten, Mikelen osasuna zela eta.

Bi lagunen artean egindako obra izanik, hori antzezteak energia eta indar asko eskatzen du. Ordu eta erdiko iraupena dauka, eta momentuz Mikel ez da ausartu emanaldi gehiago eskaintzera. Berak dioen bezala, *'besoa hautsi nuen, erdiitsu egon naiz, eta oraindik ez naiz atrebitzen berriro taula gainera igotzen'*.

Mikel hiltun ona da, graziduna, eta pertsona samurra, bihotz onekoa. Uztailean egin nizkion nik bisita batzuek liburu hau osatzeko. Arratsaldeetan gelditu ohi ginen. Han irekitzen zidan atea, siestatik jaiki berria. Hori ere egin beharrekoa dela esan nion behin, eta berak: *'Hik ere egingo duk zahartzen haizenean'*.

Liburu honek, eta omenaldiak, ilusio handia egin diote. Zirikatzearren esan nion omenaldiak erretiratzeko garaia iritsi denean eskaintzen dituztela, eta berak: *'Igual zaidak gero hil egingo banaiz ere, omenaldi egunera arte behintzat iraungo diat'*.

Liburuaren lehen idazkia eman nionean, egin zuen irribarre txikia ez dago deskribatzerik.

Alabaina, Mikel nik baino gehiago ezagutzen dutenak asko dira, nik baino gauza zorrotzagoak idatz ditzaketenak. Lagun askok kontatuko lituzkete bere pasadizoak, bere ateraldiak, bere izaeraren aztarnak.

Berarekin harreman estua izandako hainbat pertsona ezaguni liburuan zerbait idazteko gonbitea egin genien, eta ondoren doazkizue lanok. Lagun asko dauzka Mikelek, eta horietatik aukeraketa bat egin genuen. Gero, horietako batzuek ez dute denborarik izan, edo kanpoan zeuden lanean. Baina bildu ditugunak bikainak dira benetan. Horiek gabe, liburu hau hankamotz geldituko zen, osatu gabe. Lan hauei esker, nik uste Mikel denok hobetoxeago ezagutuko dugula. Eta zuri ere, irakurle, lan hauek erakargarri gertatuko zaizkizulakoan, hor doazkizu jarraian.



Airbag filmean parte hartu zutenekin. Eskuinean, Karlos Arguiñano.



Tolosan, bere gourmet paperean, gazta lehiaketako epaile lanetan.

GOAZAK ELKARREKIN

- Anjel Lertxundi -



Hamaseigarrenean, aidanez ele-berriaren gidoia prestatzen ari nintzelarik, Ibsenen Herio dantzako kapitainarena egiten ikusi nuen. Txapela kentzeko moduko lana berea, agian nik inoiz ikusi diodan biribilena. Ez nuen zalantzarik izan: berak behar zuen izan nire eleberriko Kornelio. Ondoren, berarekin –eta berarentzat-pentsatuta asmatu nituen Kareletik filmeko Balantxas eta Goenkale tele-saileko Josemari.

Ez naiz sekula damutu. Nola ba, harro sentitzeko motiboak besterik ez dizkit eta eman?

Ez, inork ez dit kenduko Mikel Garmendiarekin lan egin izanaren poza. Etekin dramatikoa atera omen diot. Ez zait zaila gertatu: zukua atera nahi dion batek eskutik heldu behar dio, haur bati bezala. Maitasunez eta xalotasunez. Konfiantza guztiarekin, Vajdaren film ezaguneko pederastak haurrak engainatzeko erabiltzen zuen ahots iradokizunez betearekin, alegia: 'Haraino joan nahi nikek; goazak elkarrekin'.

Pagotxa da Mikelekin lan egitea. Badakizu duen guztia emango dizula. Eta duen hori guztia ia haur batena dirudien bere naturaltasunean –malgutasunean- dago: zerbait lortu nahi duenean, inoiz ezer txarrik egin ez duen baten begiak jarriko dizkizu; errieta egiten badiozu, txakur zigortu berriaren antzera ibiliko zaizu kameraren jira-bueltan; gaizto jokatu beste biderik ez duenean, gupidarik gabeko krudelkeria batez ekingo dio eszenari.

Askotan jo diot adarra esanez bera dela zinearen historian kamera aurrean lo hartu duen bakarra –mingain gaiztoek diotenez eta oker ez banago, Akelarre filmean gertatu zen-. Ez da egia, Mikel Garmendia ez da bakarra: oraintsu jakin dugunez, Nicholas Cageri ere antzeko zerbait gertatu omen zaio. Baina Mikelek ez zuen lo hartu nekearen nekez errendituta zegoelako; edo garai hartan zeuzkan ehunetik gorako kiloekek murmua eragiten ziotelako; edo gintonic ondradu bezain ugarien eraginez: kameren aurrean bere mesanotxeko lanpararen aurrean bezain eroso sentitzen delako hartu zuen lo Mikelek.

BEREZKO AKTOREA

- Kontxu Odrizola -

BEREZKOA: Hiztegiak dionez, natural, propio, berezko joera: tendencia natural.

Antzerki lanetan inori ikusi badizkiot berezko joerak, horiek Mikeli ikusi dizkiot, aspaldi ikusi ere; Antzerti eskolan hasi ginenean hain zuzen ere, orain dela hogeit bat urte, gutxi gora-behera. Bera orain baino lodiagoa zen, ni, alderantziz, orain baino melarragoa. Ordura arte bere ogibidea errepresentazio lanetan zuen; emakumeentzako lurrinak, azpiko arropak eta saltzen zituen, benetan saltzaile ona gure Mikel Garmendia. Saltzaile ona izateko ere aktore ona izateak asko balio baitu, sinestarazi egin behar zaio erosleari produkturik onena zuk daramazula, besteak beste aktore lan on bat eginez.

Antzerti Eskolan lau urtetan ihardun ginen ikasketak egiten. Egia esateko, urte horiek denak, Mikelek alferrik zituen, berezko adurra baitzuen. Ikasi ez ezik irakasteko ere dohainak zituen, berezko-berezkoak.

Hitzak neurrian eta patxadan, begiradak ezer esan gabe dena esaten dutenak, musikarako belarri berezia, dantzari erritmo aproposa... akatsak ere baditu bakar batzuek, baina gaur ez ditugu aipatuko...

Lantegi guztietan ezagutu izan ditugu berezko adurra duten jendeak; Lopez Ufarte, Julian Retegi, Migel Indurain, El Juli, eta abar...

Bada, esagerazio bat badirudi ere, Robert de Niroren pareko jotzen dut nik Mikel interpretazio lanetan. Horrelako kapaziterik! Italian jaio izan balitz Victorio Gassman berari ere itzal egingo zion.

Askotan egin dut lan bere ondoan, antzerki, zine edota telebistan. Andra-gizonen papera ere askotan egin dugu, beraz ondo ezagutzeko motiboak ditut: Mikel horretarakoxe jaioa da. Interpretaziorako jaioa. **BEREZKOA**, alegia.



GAMENDIA ZARRA

- Eneko Olasagasti -



Baldin bada nire zuzendari errietak bere gordintasunean jaso duen inor hori Mikel da. Ez nator orain barkamenak eskatzera, lasai. Egin nuen bere garaian. Mikel Alfer famakoa da eta askotan alferkeriaz jokatu du baina badu xarma ordainezin hoietako bat. Nire haserre gehienak textua ongi ez jakiteagatik izaten ziren. Berak bazekien edukiko zuela, azken momentuan baina edukiko zuen, zertarako beraz gehiago ahalegindu. Ni horrek amorratu egiten ninduen. Horren ona dela ikusten nuen ezin nuela onartu hobetzeko batere ahaleginik ez egi-tea. Baina berak horrekin nahikoa zuen edo hala zela sinestarazten zigun. Baldin bada nire errietei batere jaramonik egin ez dion inor hori ere Mikel da.

Barkatuko didazue baina ideiak borborka datozkit eta papereztatze-ko beste modurik ez dut aurkitzen. Horrelakoak dira pertsonen buruz dauzkagun ideiak. Mikeli gure artean 'Garmendia zarra' deitu izan diogu. Ezizen hau gaztea zelarik ipini zion Isidoro Fernandezek, oker

ez banago. 'Bai Horixe'ko atal batean 'hor dator Garmendia zaharra' esaten zuen norbaitek. Hor hasi ginen horrela deitzen eta berehala hedatu zen gure artean. Zergatik 'zarra'? Beharbada, eta oraingo gogo-eta da hau, guk hogeita gutxi urte genituelarik berak berrogei inguru zituelako. Beharbada badelako jendea gaztea izanik zaharra dena. Beharbada gu gehienetan jokoz kanpo uzten gintuen isekarako joera berezia zuelako. Esate baterako, taldean ginela trago batzuk edaten, etxerako bidea hartu aurretik, gaizki esaka hasten zitzaigun eta guk 'Jode, Mikel ez hadi pasa' esaten genionean berak hau erantzuten zigun: 'Nei berdin zaiak, nik bota egingo diat, ze zuek nik buelta eman orduko nitaz gaizki esaka hasiko zeate ta'. Eta irribarre maltzurra ezpainetan alde egiten zuen. Umore berezi berezikoa da gure Garmendia zarra.

Ezin dut aipatu gabe utzi Mikelek gaixotasunarekin zuen harremana. Batera bizi zan dira, senideko astun bat berarekin daramana bezala. Ez dut ezagutzen beti gaixo dagoen jendea baino osasuntsuagorik. Nire amona horrelakoa zen. Nik ezagutzen diodan lehenengo gaixotasuna loarekin lotuta zegoen. Gizena zen orduan eta edozein tokitan gelditzen zitzaigun lo: klasean, entsegutan, emanaldi baten erdian taulan ez zelarik... Gogoratzen dut behin Zumaian Antigona egiten ari ginela monjetan. Ni eszenatokiko alde batean nengoen eta hara non ikusten dudan beste aldean zutik, lo eta zigarroa eskuan zuela. Koman bi hilabete eduki zuen gaitz hartatik atera zenean 'Herio dantza' egin zuen. Beti gogoratuko dut Mikelek Rabelen Boleroa dantzatzeko bere gorputz ihar hari atera zion indarra, besoa goian zuela, eszenatokiari bueltak ematen, dantza ero batean murgilduta. Baina ez naiz orain hasiko bere gaitzen inguruan, beharbada liburu honetan aipatuak izango dira, aipatuak izango diren bezala bere xelebrekeriak, hitz joko azkarrak, okurrentzia, eta pasadizoak. Korrika 12rako 'Komeriaka' prestatzen ari ginela deitu egin nion parte har zezan, testoa idatzi genuen, baina begietako gaitz

batek partaidetza eragotzi zion. Penatuena bera izan zen. Eta galtzaileak beste batzuetan irabazle zirenak: ikusleak.

Baina guztiaren gaintetik, berarekin lanean pasa ditudan momentuak, lanak eta batez ere pertsonaiak ekarri nahi ditut lerro hauetara, bere aktore dohain ikaragarriak. Mikelen aurpegiak, bere fisikoak, ez du parerik. Hala zen laua zenean, hala da zimurtzean, eta zimur bakoi-tzean umorerako arrazoi bat aurki daiteke. Ez dakit beste inorekin egin dudan berarekin bezain bat farre. Eta negar ere bai. Gogoan dut Sligo bakarrikzeta egiten zuenean 'Agur, Eire agur'. Gogoan 'Ama, begira zazu' egiten pasatako uneak. Xabier Agirrerekin osatzen zuen Ertzain bikotea. 'Maité'ko belzkotearekin zituen sekuentziak. Zerrenda bene-tan luzea litzateke, eta gainera irekia, zeren izenburu gehiago gehitzea espero dut. Textu gutxi jarriko diat, lasai Mikel.

Mikeli beti gustatu izan zaio paseatzea, zine edo antzoki inguruetan batez ere. Emanaldia hasi aurretik takilatik, salmenta nola zihoan jakiteko. Eta bukaeran, jendetik gertu, zer esaten zuten jakin nahian. Mikeli ezagutua izatea gustatzen zaio, jendearen onespena, eta mirespena jasotzea, maitatua sentitzea, eta berak ez du inoiz ezkutatu hori. Ezaugarri hau eskasa da euskal aktoreen artean. Beti esan izan dut euskal aktoregintzak bere lehenengo aroa gure belaunaldiak, profesionalizatzen lehenak, hirurogei urte betetzerakoan itxiko zuela. Aktorerik izango genuelako aiton bat eta ilobak ere antzesteko. Gure belaunaldi zabal horretako zaharrena gizonetan Mikel da. Dekanoa. Ez ditu urte hoiek baina lehen baino gertuago dabil. Urtetan ez bada merezimendutan eta horren leku-ko liburu hau. Omenaldiek zahartzaroaren ataria iragartzen dute, zahartzaro beraren ikur ez direnean. Zahartzen ari haiz, Mikel. Eta hirekin batera gu guztiok. Oraingoan ere aurrea hartu diguk, alproja!

Hitz jokoetarako abilezia berezia izan du beti Mikelek. Bere esaldirik famatuena, norbaiti entzuna beharbada baina erabat bere egina, erabiliko dut bukatzeko: Aunque la mona se vista de seda tu siempre nunca. Nik ere bai zu, Mikel.

EL METODO UNICO

- Félix Linares -



Existen muchos métodos de interpretación, pero solo existe un método para ser un buen actor. Ser uno mismo y el personaje al mismo tiempo. BRANDO, CONNERY, DE NIRO, HOPKINS nunca nos dejan olvidar que son ellos mismos, pero siempre nos creemos su personaje. Espero que MIKEL no se ofenda si le coloco en compañía de tan famosos compañeros, pero me parece que todos ellos practican el mismo deporte: van al plató, se ponen en su sitio y hacen lo que tienen que hacer y dicen lo que tienen que decir. Y luego se van a casa, o a tomar algo con los compañeros, o a donde les

apetece. Y al día siguiente a repetir la jugada. Usted se puede encontrar a MIKEL recorriendo GOENKALE en la pequeña pantalla, cambiando angulas por puros en la grande, anunciando unas zapaterías en ambas, y ejerciendo de educando de postguerra en el escenario, y sabe siempre que está viendo a MIKEL GARMENDIA, porque su cara, su gesto son inconfundibles, pero lo olvidará enseguida porque su actuación le arrebatará y le colocará en trance de ver al personaje. Como debe ser. La esencia de la interpretación, la depuración del estilo, la cima de la profesión, esa mezcla de vocación y esfuerzo justamente


correspondida con un éxito que siempre es tardío, porque esas cosas tienen que ser tremendas si te pasan a la edad de LEONARDO DICAPRIO, pero para MIKEL que lo tiene merecido desde hace un montón de años, queda algo relativizado. La diferencia con los ilustres famosos anteriores es que a MIKEL le tenemos cerca, nos parece el vecino de la puerta de al lado, nos resulta familiar y así no hay forma de idolatrar a nadie. Las estrellas son siempre lejanas, pero los actores están a nuestro lado. Y ante esta disyuntiva MIKEL siempre elegirá las luces de su pueblo a los fastos de Hollywood, me parece. Lo que necesita MIKEL es papeles que le hagan gozar, y lo que necesitamos sus fans es que sean muchos para poder disfrutarlos. Con su particular método, el único método.

KURRIKULUM BATERAKO DATUAK

ANTZERKIAN EGINDAKO LANAK:

Obra	Egilea	Urtea	Zuzendaria
Antígona	Jean Amouil	1982	Esteve Polls
Las troyanas	Eurípides	1982	Luis Iturri
Arlequín	Carlo Goldoni	1982	Ferruccio Soleri
La danza de la muerte	Strimberg	1983	Lluís Solá
6 personajes	Pedro Carrión	1984	Pedro Carrión
Aspirina para dos	Woody Allen	1985	Jokin Cueto
El soldado Sveyck	Bertold Bretch	1986	Javier Sabadé
Eqqus	Peter Shafer	1986	Jokin Cueto
Ama begira zazu	Odriozola-Irureta	1987	E. Olasagasti
Agur Eire agur	Brian Field	1988	Pere Planella
Katuska	Zarzuela	1990	Amengual
La cacatua verde		1993	Mario Gas
El florido pensil	Andrés Sopena	1996	Bernués-Gabilondo





TANTTAKA -K produkturik en coproducción con TOPO rekin batera presenta

Agur Eire...agur

(Translations)

de BRIAN FRIEL -erena

Diraccón
PERE PLANELLA
Zuzendaria



IRATI FILMAK, S.A.
Presenta

PATXI BISQUERT - MARIO PARDO

LUIS IRIONDO - FELIPE BARANDIARAN - MIKEL GARMENDIA

La presentación de **LOURDES ORUBE - RAUL FRAIRE** en 'SILVET'

Unión: ANJEL LERTXUNDI

Ayudante Dirección: JOSETXO SAN MATEO Música: ANGEL ILLARRAMENDI Montaje: JUAN SAN MATEO
Director de Producción: JOSE L. GARCIA ARROJO Director de Fotografía: ANGEL LUIS FERNANDEZ

Productor Ejecutivo: JESUS ACIN URZAINKI

Dirigida por: ANJEL LERTXUNDI

DISTRIBUIDA POR
JOSE ESTEBAN ALENDA S.A.

Película subvencionada por el MINISTERIO DE CULTURA
Película subvencionada por el DEPARTAMENTO DE CULTURA Y TURISMO DEL GOBIERNO VASCO

ZINEAN EGINDAKO LANAK:

Filmea	Urtea	Zuzendaria
La conquista de Albania	1982	Alfonso Ungría
Akelarre	1982	Pedro Olea
The Hite	1982	Stephen Friers
Hamaseigarrenean	1984	Anjel Lertxundi
Kareletik	1985	Anjel Lertxundi
La monja alférez	1985	Javier Agirre
Fuego eterno	1985	Javier Rebolledo
Terranova	1987	Ferrán Llagostera
El polizón de Ulises	1987	Javier Agirre
Ander eta Yul	1987	Ana Díez
El cura de Barga	1988	Pedro Olea
El río que nos lleva	1988	Antonio del Real
El anónimo	1988	Alfonso Aranda
Maitasuna offean	1989	Koldo Izaguirre
27 horas	1989	Montxo Armendariz
Eskorpion	1990	Ernesto Telleria
Juntos y revueltos	1991	Patxi Barco
Dentro y fuera	1992	Patxi Barco
Maite	1994	Olasagasti-Zabala
Cuestión de suerte	1996	Javier Moleón
Airbag	1996	Bajo Ulloa
Visionarios	2000	Gutierrez Aragon

TELEBISTAN EGINDAKO LANAK

Programa	Katea	Urtea	Zuzendaria
Bai horixe	ETB1	1984	J.M. Gutierrez
Hau da AU	ETB1	1986	Irureta-Goenaga
Beni eta Marini	ETB1	1986	Irureta-Goenaga
Pedro I el cruel	TVE	1988	
Del Miño al Bidasoa	TVE	1988	
Jaun eta jabe	ETB1	1990	Olasagasti-Zabala
Flamingo Berria	ETB1	1990	Ramón Barea
Brigada central	TVE	1990	Pedro Masó
Oh España	TV3	1991	Dagoll dagom
Bi eta bat	ETB1	1992	Olasagasti-Zabala
Goenkale	ETB1	1994	batzuen artean
Maite	ETB2	1997	Olasagasti-Zabala
Banan banan	ETB1		

BESTE LANAK:

‘El Diario Vasco’, 1987, publierreportaia.

JASOTAKO SARIAK:

- Aktorerik onena, Cartagena del Mar-eko Itsasoko Zine Topeketetan, 1987an, ‘Kareletik’ filmagatik.
- ‘Iparragirre’ saria, ETB1eko aktorerik onenari, 1998an, ‘Goenkale’ rengatik.





EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK

AZPEITIA

ARGITARATU DITUEN LIBURUXKAK

- 1990 • ANTONIO MARIA LABAIEN eta EUSKAL ANTZERKIA.
- 1991 • TORIBIO ALZAGA heriotzaren 50. urtemuga.
- 1992 • LÉON LÉON.
• ANASTASIO ALBISU.
- 1993 • ON MANUEL LEKUONA ETA BERE TEATROA.
• ARKOTXA ANAIK EUSKAL ANTZERKIAN.
- 1994 • KATALINA ELEIZEGI.
“GARBIÑE”.
• EMAKUME EGILEAK EUSKAL ANTZERKIAN.
María Arizmendi / Juanamari Malharia / Miren Arrizabalaga.
- 1995 • IÑAKI BEGIRISTAIN ALBISU (1922-1984).
Antzerkigilea.
- 1996 • XABIER LIZARDI (1896-1933).
Antzerkiak: Laño ta Izar.
Bi aizpak.
Ezkondu ezin ziteken mutilla.
- 1997 • PIARRES LARZABAL CARRERE, OROITUZ.
• AITA JOSE ANCHIETA (S.J.) Dohatsua.
- 1998 • A. ARZELUS eta A. M^a LABAYEN.
Belaunaldiko antzerkilariak.
- 1999 • NEMESIO ETXANIZ.
Teatrozaleen gogoan.
- 2000 • GABRIEL ARESTI SEGUROLA.
Euskal Antzerkian, Biola eta mailuarekin.
- 2001 • MIKEL GARMENDIA
Antzerkia zainetan.